

KOSTUAK

Bi kostu-egitura mota nagusi daude negozio-ereduetan: kostuek bultzatutakoak eta balioan oinarritutakoak. Bi ereduak helburu desberdinak dituzte, baina biak dira ohikoak enpresetan. **Kostuek** bultzatutako ereduak irabaziak lortzea bilatzen dute, gastuak ahalik eta gehien murriztuz. Balioan oinarritutako ereduak, aldiz, bezeroari balio handiagoa eskaintzea dute helburu, nahiz eta horrek kostu handiagoak ekarri.



Balioan oinarritutako eredua ez da egokiena gure boligrafoarentzat, gure helburua funtzionala eta prezio onean eskaintzea delako, luxuzko produktu bat sortzea baino. Gure kostuak bi motatakoak dira: **finkoak**, hala nola eraikinen eta bulegoen alokairuak, beti berdinak direnak, eta aldakorrak, materiala, tinta eta paketatzea bezalakoak, eta ekoizpen handiagoarekin handitu egiten direnak.



Kostuek bultzatutako ereduak gastuak murriztea dute helburu, prozesuak **automatizatuz**, material merkeak erabiliz eta produkzio handia eginez. Horri esker, prezio baxuak eskaini daitezke. Gure Txope-Tex boligrafoa eredu honetan sartzen da, sinplea, praktikoa eta eguneroko erabilerarako pentsatua delako.